

ELKARTEAK

Lankidetzan lan egiteak proiektuak aberasten ditu, eta gure enpresa atzean gelditzea nahi ez dugunez, beste erakunde edo enpresa batzuekin harremanetan jartzea eta aliatzea pentsatu dugu. Honen bitartez, ETLove hobetzea eta aberastea espero dugu.



Hasteko, gure proiektuaren oinarrian zentratuko gara, plataforman hain zuzen ere. Haren sorrerari eta egiturari buruz ez dugu ideia handirik, beraz, informatikari batekin jarri beharko gara kontaktuan hori aurrera eraman ahal izateko. Anne-ren osaba informatikaria da, eta bere lankideekin batera, gure proiektuan inplikatzeke prest dago, plataformaren sorrera gauzatuz. Gainera, berak lan egiten duen informatika denda, "G T I Informática" izenekoa, gure herrian kokatuta dago, Urretxun, hortaz, merkataritza lokalak sustatzeko aukera bikaina izango da. Aldi berean, edozein zalantza argitzeko edota bilerarenbat egiteko oso eskuragarri izango dugu.

Plataformarekin jarraituz, haren kudeaketa ez dugu informatikari baten esku utziko, praktikan dauden unibertsitarioen esku baizik. Hala ere, Eiderrek ezagutza zabala du teknologien kudeaketa eta mantenimenduen inguruan, beraz, bera izango da honen arduradun. Ideia hau aurrera atera dadin, EHU-rekin aliatuko gara, eta unibertsitate horretan informatikaren arloaren inguruan gradu bat egiten ari diren ikasleak gure enpresan jarduteko aukera izango dute. Gainera, honen bitartez gure gastuak murriztu egingo dira, praktikatako ikasleei ez baitzaie soldata bat ordaindu behar.

eman ta zabal zazu



UPV EHU

Bestalde, gure plataforma maitasunean oinarritzen denez eta horrek sexuarekin erlazio zuzena duenez, arlo honetan espezializatua den enpresa batekin jarriko gara harremanetan, *PlatanoMelon*-ekin, alegia, Hau internet bidez saltzen diren jostailu erotikoen marka liderra da Espainian, haien helburua sexuarekin lotutako aurreiritziekin, ezjakintasunarekin eta tabuekin amaitzea da. Enpresa honen pentsamoldearekin guztiz ados gaude eta gure bezeroei berdina transmititzea komenigarria dela dirudigu. Horregatik, haiekin batera ekitaldirenbat prestatzea pentsatu dugu. Honen bitartez, PlatanoMelonek bezero gehiago lortu ditzake, eta guk zerbait desberdina eta aberasgarria eskaini ETLove-eko harpidedunei.



Azkenik, uste dugu enpresa bat 0-tik sortzean profesionalen laguntza izatea oso garrantzitsua dela, gainera, kontuan hartzekoa da hasiberriak garela. Hortaz, METXA izeneko ekintzaileentzako proiektuen azeleragailua den enpresarekin jarri gara kontaktuan. Hau Euskadin kokatutako lehen azeleragailua da, haiek pertsona ekintzaileen ideietan inbertitzen dute, pertsona ekintzaileen hazkundera sustatzea eta erraztea jomuga dutelarik. Horretarako, hainbat bizkortze-programa sortu ditu, pertsona ekintzaileek bere erronkak lor ditzaten.

The logo for METXA consists of the word 'METXA' in a bold, red, sans-serif font. To the left of the 'M' is a small red star.

The logo for ETC features the letters 'ETC' in a black, handwritten-style font. The 'C' is stylized to resemble a heart shape.